

EUSKAL TALENTUAK INDAR HANDIA IZANGO DU GIZAKUNDEKO 27. MUSIKA KLASIKOAREN ZIKLOAN, 2026KO ASTE NAGUSIAN

- Instrumentu klasikoen aniztasuna, musika estilo eta eskola ezberdinak, are ensemble, orkestra eta bakarlari bakoitzaren berezitasunarekin batera, programaren nota nagusiak izango dira.
- Abuztuaren 22tik 29ra bitartean, Euskadiko, Estatuko eta nazioarteko artistak bilduko dituzte 8 saioek, denak 20:30ean eta sarrera doan tenpluko edukiera bete arte.
- Euskal kutsua nabarmena izango da programan, bertako artista eta konpositorei esker, eta Bilboko historiari ekingo zaio musikaren bidez.

(Bilbon, 2026ko uztailaren 2an).- **Gizakundeko Musika Klasikoaren Zikloak**, Aste Nagusiko musika-programazioaren hitzordu sendoenetako batek, **27. edizioa** beteko du aurten **goi-mailako zortzi talde** bilduko dituen egitarau batekin, non askotariko estiloak jorratuko diren eta euskal kutsua nabarmen izango den. Guztiz, zortzi kontzertu egongo dira, abuztuaren 22tik (larunbata) 29ra (larunbata) bitartean, denak 20:30ean eta sarrera doan tenpluko edukiera bete arte.

Instrumentu klasikoen aniztasuna, eta musika estilo eta eskola ezberdinak, protagonista izango dira aurten programazioan, urtero publiko zabal eta askotarikoa erakartzen dituen eta nahiz zaleen intereserako nahiz beste musika estilo batzuk ezagutu nahi dituztenentzako oso gustagarria dena.

Ensemble, orkestra eta bakarlari bakoitzaren berezitasuna izango dira aurten nagusi egitarauan, Estatu barruko eta kanpoko artistak bilduko dituen. Bertan, euskal talentua nagusi izango da, bertako artista eta konpositoreen presentzia handiari esker eta musikaren bidez Bilboren historiari egingo zaion errepasoarekin.

Programazioa **abuztuaren 22an**, larunbata, irekiko da **"Tutto Vivaldi"** programarekin. Bertan, **Musbika Ensemble** euskal taldeak konpositore barrokoaren obra garrantzitsuenen errepasoa egingo du, "Folia"-tik "Lau urtaroak" lanera. Musika klasikoari eta antzinako musikari egozten zaizkion oztopoak eta kliseak gainditzeko helburuarekin sortua, taldeak eszenaratze fresko eta dinamiko bat proposatzen du, edonor harritzeko eta musika horrekin gozatzeko aukera ematen duena.

Abuztuaren 23an, igandea, **Iñaki Bermudez** saxofoi-jotzaileak eta **Albert Guinovart** piano-jotzaileak osatutako bikotearen txanda izango da, eta **"Traditional Echoes"** izenpeko progrsama batean Miquel de Jorge, W. Van Klaveren eta Albert Guinovart beraren lanak errepasatuko dituzte. Horrez gain, euskal musikan Aita Donostia edo Xabier Lete bezalako konpositoreen abestiek markatu duten tradizioan oinarritua, Euskal Lurrak kantua ere izango da ikusgai.

Abuztuaren 24an (astelehena), **Tatiana Samouil** biolin-jotzaileak eta **Josu Okiñena** piano-jotzaile eta ikertzaileak hartuko diete lekukoa, eta W.A. Mozart, M. Ravel, P.I. Čajkovskij, F. Kreisler eta P. Sarasateren lanak jorratuko dituzte. Errusiako Eskolaren enbaxadorea, eta Sochiko (Errusia) 2014ko Olinpiar Jokoetako itxiera-ekitaldiko protagonistetako bat, Yuri Bashmetekin, Samouilek ibilbide sendoa du solista, grabazioetako artista, ganberako musikari eta pedagogo gisa. Okiñenak, bere aldetik, bi hamarkada baino gehiago daramatza musika klasikoari eskainita, XX. mendeko euskal konpositoreei begira, bereziki.

Abuztuaren 25ean, asteartea, **Boreal Bikotea** izango da protagonista, **Claudia Besné** (harpa) eta **Eva Calvok** (gitarra) osatua, eta **"Hari artean: soinudun bidaia"** programa aurkeztuko dute. Harpa eta gitarraren elkarreraginak "garai desberdinetako pieza adierazgarri osatutako erreperitorioari" ekingo die, eta, besteak beste, Stanley Myers, Astor Piazzolla, Isaac Albeniz, Enrique Granados, Maximo Diego Pujol eta Luigi Boccherini artisten lanak jorratuko ditu. Bikotea 2019an sortu zen Salzburgoko Mozarteum Unibertsitate ospetsuan, eta bikaintasun teknikoa eta interpretatzeko sentiberatasun aparta konbinatzen dituen ikuspegi artistikoa garatu dute. Gainera, talentuagatik, musikalitateagatik eta akatsik gabeko teknikagatik aintzatespena lortu du.

Asteazkenean, **abuztuaren 26an**, **Ecco Quintet Musikeneren** txanda izango da. Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian sortutako formazioa da, eta C.M. Von Weber eta J. Brahms-en obrak eskainiko ditu bere programan. Duela gutxi sortutako taldea sentsibiltate musikal eta soinuaren arloko oreka nabarmena ditu, ganbera-musikarekin konpromisoa izatez gain, eta honako hauek osatzen dute: **Maddi Arriola Mendieta** eta **Isabel Guzmán Jiménez** biolinistak, **Martí Mena Estopà** biolista, **Lucía Arboniés Vazquez** zellista eta **Rocío Fernández Alfonso** klarinete jotzailea.

Abuztuaren 27an, ostegunean, **Osimun Quartet** saxofoi talde gazteak hartuko die lekukoa. Laukoteak uztartu egiten ditu tradizio klasikoari dion errespetua eta hauskortasunerako eta esperimentaziorako irekita egotea, eta ikuspegi horretatik beratik helduko diote "Gelditasunetik mugimendura" programari. Bertan, bulkada musikalaren formak aztertuko dituzte, hasi kontenplazio sakonetik eta dantza eta mugimendu biziagora arte, eta Joseph Haydn, Fanny Hensel-Mendelssohn, Felix Mendelssohn Bartholdy, György Ligeti, Béla Bartók eta Joan Pérez Villegasen obrak interpretatuko dituzte.

Abuztuaren 28an, ostirala, **Rossini Abesbatzaren "Bilboko irudiak"** izango da protagonista. Bilboko historia errepasatuko du, Uriaren historiako une magikoak gogora ekarri eta arbasoak omentzen dituzten abesti eta testuekin. 1990etik jardunean, gaur egun abesbatzaren zuzendari artistikoa Ana Begoña Hernández bilbotarra da.

Programazioari amaiera emango dio, **abuztuaren 29an**, larunbata, **Adolfo Gutiérrez Arenas** biolontxelo jotzaileak, une honetan nazioartean proiektzio handiena duen Estatuko musikarietako batek. 2010ean London Symphony Orkestrarekin debuta egin zuenetik, Ibermusica seriean, orkestra-zuzendari eta nazioarteko talde nabarmenekin kolaboratu du, eta errezitaldi ugaritako protagonista izan da mundu osoan zehar. Bilboko hitzorduan, J.S. Bachen **"Soilik biolontxeloarentzako hiru suite"** interpretatuko du.

MUSIKA KLASIKOAREN 27. ZIKLOAREN EGITARAUA

Lekua: Gizakundearen Eliza

Ordua: 20:30ean

Sarrera librea edukiera bete arte

- **Abuztuak 22 (larunbata):** Musbika Ensemble - "Tutto Vivaldi"
- **Abuztuak 23 (igandea):** Iñaki Bermúdez eta Albert Guinovart – "Traditional Echoes"
- **Abuztuak 24 (astelehena):** Tatiana Samouil eta Josu Okiñena
- **Abuztuak 25 (asteartea):** Boreal Bikotea – "Hari artean: soinudun bidaia"
- **Abuztuak 26 (asteazkena):** Ecco Quintet Musikene
- **Abuztuak 27 (osteguna):** Osimun Quartet – "Gelditasunetik mugimendura"
- **Abuztuak 28 (ostirala):** Rossini Abestatzak – "Bilboko irudiak"
- **Abuztuak 29 (larunbata):** Adolfo Gutiérrez Arenas – "Soilik biolontzeloarentzako hiru suite"

SARE SOZIALAK:

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK TOK](#)
- **BILBAO JAIK:** [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)

#AsteNagusia2026

EL 27º CICLO DE MÚSICA CLÁSICA DE LA ENCARNACIÓN CONTARÁ CON UNA GRAN PRESENCIA DE TALENTO VASCO DURANTE ASTE NAGUSIA 2026

- La variedad de instrumentos clásicos, estilos y escuelas de música, así como la singularidad de cada ensemble, orquesta y solista serán las notas dominantes del programa.
- Del 22 al 29 de agosto, las ocho sesiones, todas ellas a las 20:30 horas y de entrada gratuita hasta completar el aforo del templo, reunirán artistas vascos, del Estado e internacionales.
- El programa tendrá un marcado acento vasco, a través de artistas y compositores locales, y abordará la historia de Bilbao a través de la música.

(Bilbao, a 2 de julio de 2026).- El **Ciclo de Música Clásica de la Encarnación**, una de las citas más consolidadas de la programación musical de Aste Nagusia, alcanzará este año su **27ª edición** con un programa que reunirá **ocho formaciones de alto nivel** que abordarán una gran diversidad de estilos y tendrán un marcado acento vasco. Será en ocho conciertos, con acceso libre hasta completar aforo, que tendrán lugar a las 20:30 horas, entre el sábado 22 y el sábado 29 de agosto.

La variedad de instrumentos clásicos, estilos y escuelas serán este año protagonistas de una programación que cada año congrega en el templo de Atxuri a un público amplio y diverso, y que despierta el interés tanto de las y los aficionados como de quienes desean conocer otros estilos de música.

La singularidad de cada ensemble, orquesta y solista serán este año las notas dominantes de un programa que contará con artistas de dentro y fuera del Estado, y en el que el talento vasco tendrá una importante presencia, con fuerte presencia de artistas y compositores locales y con un repaso a la historia de Bilbao a través de la música.

La programación se abrirá el sábado **22 de agosto** con el programa **“Tutto Vivaldi”**, en el que la formación vasca **Musbika Ensemble** hará un repaso de las obras más relevantes del compositor barroco, desde “Folia” a “Las Cuatro Estaciones”. Nacida con el objetivo de superar las barreras y clichés que se atribuyen a la música clásica y a la música antigua, la agrupación propone una puesta en escena fresca y dinámica que brinda la oportunidad de que cualquier persona pueda sorprenderse y disfrutar con esta música.

El domingo **23 de agosto** será el turno del dúo formado por el saxofonista **Iñaki Bermúdez** y el pianista **Albert Guinovart**, que en **“Traditional Echoes”** harán un repaso de obras de artistas como Miquel de Jorge, W. Van Klaveren y el propio Albert Guinovart. El programa incluirá, además, el tema Euskal Lurrak, inspirada en canciones que han marcado una tradición en la música vasca de compositores como Aita Donostia o Xabier Lete.

Les tomarán el relevo, el lunes **24 de agosto**, la violinista **Tatiana Samouil** y el pianista e investigador **Josu Okiñena**, con un programa en el que abordarán obras de W.A. Mozart, M. Ravel, P.I. Čajkovskij, F. Kreisler y P. Sarasate. Embajadora de la Escuela Rusa, y protagonista junto a Yuri Bashmet de la ceremonia de clausura de los Juegos Olímpicos de 2014 en Sochi (Rusia), Samouil cuenta con una carrera consolidada como solista, artista de grabación, músico de cámara y pedagoga. Okiñena, por su parte, lleva más de dos décadas dedicado a la música clásica, con un enfoque especial en los compositores vascos del siglo XX.

El martes **25 de agosto** el protagonismo será para el **Dúo Boreal**, formado por **Claudia Besné** (arpa) y **Eva Calvo** (guitarra), que presentarán el programa “**Entre cuerdas: un viaje sonoro**”, en el que arpa y guitarra interactúan “en un repertorio que abarca piezas emblemáticas de distintas épocas”, de artistas como Stanley Myers, Astor Piazzolla, Isaac Albéniz, Enrique Granados, Máximo Diego Pujol y Luigi Boccherini. El dúo, fundado en 2019 en la prestigiosa Universidad Mozarteum de Salzburgo, ha desarrollado una visión artística que combina excelencia técnica con una sensibilidad interpretativa única, y se ha ganado el reconocimiento por su talento, musicalidad y técnica impecable.

El miércoles **26 de agosto** será el turno de **Ecco Quintet Musikene**, formación surgida en el Centro Superior de Música del País Vasco, que interpretará un programa con obras de C.M. Von Weber y J. Brahms. Formado recientemente, el grupo destaca por su sensibilidad musical, equilibrio sonoro y compromiso con la música de cámara, y lo integran las violinistas Maddi Arriola Mendieta e Isabel Guzmán Jiménez, el violista Martí Mena Estopà, la cellista Lucía Arboniés Vazquez y la clarinetista Rocío Fernández Alfonso.

Les tomará el relevo, el jueves **27 de agosto**, el joven conjunto de saxofones **Osimun Quartet**, que aúna el respeto por la tradición clásica con una audaz apertura a la fragilidad y la experimentación. Desde esta perspectiva abordarán el programa “**De la quietud al movimiento**”, que propone un recorrido por las distintas formas del impulso musical, desde la contemplación profunda hasta la danza y el movimiento más vital. En él, interpretarán obras de Joseph Haydn, Fanny Hensel-Mendelssohn, Felix Mendelssohn Bartholdy, György Ligeti, Béla Bartók y Joan Pérez Villegas.

El viernes **28 de agosto** el protagonismo será para las “**Estampas bilbainas**” del **Coro Rossini**, que repasará la historia de Bilbao con canciones y textos que evocan momentos mágicos de la historia de la Villa y homenajean a sus antepasadas y antepasados. En activo desde 1990, la formación musical cuenta en la actualidad con la dirección artística de la bilbaina Ana Begoña Hernández.

La programación la cerrará, el sábado **29 de agosto**, el violonchelista **Adolfo Gutiérrez Arenas**, uno de los músicos del Estado con mayor proyección internacional en estos momentos. Desde su debut en 2010 con la London Symphony Orchestra en la serie de Ibermusica, ha colaborado con destacados directores de orquesta y formaciones internacionales, y ha sido protagonista de numerosas giras recitales por todo el mundo. En su cita en Bilbao interpretará las “**Tres suites para violonchelo solo**” de J.S. Bach.

PROGRAMACIÓN DEL 27º CICLO MÚSICA CLÁSICA

Lugar: Iglesia de la Encarnación

Hora: 20:30 horas

Entrada libre hasta completar aforo

- **Sábado 22:** Musbika Ensemble - "Tutto Vivaldi"
- **Domingo 23:** Iñaki Bermúdez y Albert Guinovart – "Traditional Echoes"
- **Lunes 24:** Tatiana Samouil y Josu Okiñena
- **Martes 25:** Dúo Boreal – "Entre cuerdas: un viaje sonoro"
- **Miércoles 26:** Ecco Quintet Musikene
- **Jueves 27:** Osimun Quartet – "De la quietud al movimiento"
- **Viernes 28:** Coro Rossini – "Estampas bilbainas"
- **Sábado 29:** Adolfo Gutiérrez Arenas – "Tres suites para violonchelo solo"

REDES SOCIALES:

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK TOK](#)
- **BILBAO JAIK:** [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)

#AsteNagusia2026